BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

2021eko martxoaren 23an, goizeko 11:30ean, egindako eta honako pertsona hauek osatutako Bozeramaileen Batzordeak:

Jon Iraola
Ana Tellería
Mertxe Garate
Gorka Errasti
María Isabel Pejenaute

Honako akordio hauek hartu zituen:

**1.- ENBA Elkarteak aurkeztutako mozioa Mendiko abelzaintzaren eta otsoaren populazioaren kontrolaren alde.**

Alderdiek mahai gainean uztea erabaki dute eta ez lantzea martxoko bilkuran. Bakoitzak jakinarazi beharko du, osteguna baino lehen, zein erabaki hartzen duen testuari buruz.

Eibarko EAJ-PNV Udal taldearen aldetik, iragarri dute mozioaren alde bozkatuko dutela.

**2.- Eibarko EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa partehartze ordenantzari buruz.**

Plenora eramatea erabaki da

**3.- Eibarko EH-Bildu udal taldeak aurkeztutako eskaera batzorde aholkulariak, lan batzordeak eta osoko bilkurak modu presentzialean egin daitezen.**

Osoko bilkurak, ohikoak zein ezohikoak, modu presentzialean egitea erabaki da, martxoko ohiko osoko bilkurari dagokion bilkura barne.

ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

La Junta de Portavoces, en reunión celebrada el 23 de marzo de 2021 a las 11:30 horas y con la presencia de:

Jon Iraola
Ana Tellería
Mertxe Garate
Gorka Errasti
María Isabel Pejenaute

Adoptó los siguientes acuerdos:

**1.- Moción presentada por la asociación ENBA, para el control de la ganadería de montaña y la población del lobo.**

Los grupos deciden dejarla sobre la mesa y no abordarla en el Pleno de marzo. Cada uno de ellos deberá informar, para antes del jueves, qué posición adopta sobre el texto.

Por su parte, el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV, ha anunciado que votará a favor del contenido de la moción.

**2.- Moción presentada por Eibarko EAJ-PNV, relativa a la ordenanza de participación.**

Decide elevarse al Pleno.

**3.- Solicitud presentada por Eibarko EH-Bildu para la celebración de las comisiones asesoras y de trabajo y los plenos de forma presencial.**

Se ha acordado que las sesiones plenarias, tanto ordinarias como extraordinarias, se celebrarán de forma presencial, incluida la sesión

correspondiente al Pleno ordinario del mes de marzo.

Batzorde aholkulariei dagokienez, Eibarko EAJ-PNV eta Elkarrekin-Podemos Eibar udal taldeek jakinarazi dute nahiago dutela modu telematikoan egiten jarraitzea. Eskaera aurkeztu duen Udal alderdiak, bestalde, adierazi du batzorde bakoitzak erabaki beharko lukeela bilkurak telematikoki edo presentzialki egin nahi dituen.

En lo que respecta a las comisiones asesoras, los grupos municipales Eibarko EAJ-PNV y Elkarrekin-Podemos Eibar han informado de que prefieren que se continúen celebrando de forma telemática. La parte proponente, por su parte, ha considerado que debe ser cada comisión la que determine  si las sesiones de la misma se realizarán de forma telemática o presencial.

Azkenik, lan-batzordeak telematikoki egiten jarraituko direla erabaki da.

Por último, se ha acordado que las comisiones de trabajo se continuarán celebrando de forma telemática.

Gauza horiek zehaztu ondoren, Portaleko areto nagusiaren edukiera berrikusteko eskatu da.

Tras definir estos extremos, se ha solicitado la revisión del aforo del salón de actos de Portalea.

Era berean, Eibarko EH-Bildu taldeak eskatu du berrikus daitezela zinegotziek batzordeetara joateagatik jasotzen dituzten ordainsariak, bilerak modu telematikoan egiten diren kasuetan. Ildo horretan, alkateak gai hori Udal idazkariarekin kontsultatuko du, hori posible den ala ez erabaki dezan.

Asimismo, el grupo Eibarko EH-Bildu ha solicitado que se revisen las retribuciones que perciben los/as concejales/as por asistir a las comisiones en los casos en los que se celebren de forma telemática. En este sentido, el alcalde consultará esta cuestión con el Secretario Municipal  para que determine si eso es posible.

Gai-zerrendan jasotako puntuez gain, alkateak jakinarazi du Maite Arroitajauregi eibartarrari Txopitea eta Pakea ematea proposatu diola, Udalaren aitorpen moduan, Goya saria irabazteagatik. Alderdi guztiek adierazi dute ados daudela aitorpen hori egitearekin.

Fuera de los puntos del orden día, el alcalde ha informado de que le ha propuesto a la eibarresa Maite Arroitajauregi la entrega del Txopitea eta Pakea, como reconocimiento del Ayuntamiento por la obtención del Goya. Todos los grupos afirman estar de acuerdo con la entrega de ese reconocimiento.

BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

Bestalde, Iraolak jakinarazi dio Bozeramaileen Batzordeari Astelena pilotalekua eskaini diola Debabarrenako ESIari, Eibarko txertaketa kanpainaren baitan erabili dezaten.

Halaber, helarazi die idatzi bat bidali diola Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkariari, Alfako eskolen eraikinaren egoerari konponbide bat emateko eskatuz. Zentzu honetan, Ordezkariak jakinarazi dio datozen egunotan eraikinaren eraisketarekin hasiko direla.

Azkenik, Eibarko Elkarrekin-Podemos udal taldearen ordezkariak Txontako bizilagun batek egin dion eskaeraren berri eman du.

Eta eguerdiko 12:25ak izanik eta gainerako gairik ez dagoenez, Alkateak bilerari amaiera eman dio.

ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

Por otro lado, Iraola ha informado también a la Junta de Portavoces de que ha ofrecido el frontón Astelena a la OSI Debabarrena para la campaña de vacunación en Eibar.

Asimismo, les ha trasladado que ha remitido un escrito a la Delegada Territorial de Educación de Gipuzkoa en el que le ha solicitado la adopción de medidas para solucionar el estado en el que se encuentra el edificio de las antiguas escuelas de Alfa y que, ante este escrito, la Delegada le ha informado de que en los próximos días van a dar comienzo a la demolición del mismo.

Por último, la representante del grupo municipal Elkarrekin-Podemos Eibar ha trasladado la petición que le ha hecho llegar un vecino de Txonta.

Y siendo las 12:25 horas, y no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde levanta la sesión.